

# **JUNJON Errealitate Birtualeko Betaurrekoak**

Gure enpresaren izena Junjon da eta gure produktua errealitate birtualeko betaurrekoak dira. Honek hasiera batean ez du ideia berritzaile bat ematen, baina produktuaz gain, zerbitzu bat ere eskainiko dugu: kontzertuak zuzenean eta errealitate birtualean ikusteko aukera, sarrerak bukatu arren kontzertua ikusteko aukera guztiz ez galtzeko.

Gure helburua lortzeko eta bezeroa benetan kontzertuan egongo balitz bezala sentitzeko, 360 graduko hainbat kamera jarriko ditugu kontzertua izango den lekuan eta horrela, bezeroak bere etxetik edo dena delako lekutik kontzertua bertan egongo balitz bezala ikusiko du, aldeetara eta atzera begiratzeko aukerarekin eta kamerak entzungo duena entzunez.

Gure zerbitzua aurrera ateratzeko egin behar den lan guztia egingo dugu eta behar den jende guztiarekin kontaktuan jarri dena zehazteko. Etahasieran kontzertuetarako bakarrik eskaerarik dugun arren, gure helburua futbol, saskibaloio edo beste edozein kirolen partidutan, musikaletan, moda desfiletan eta beste edozein ekitalditan aplikatzea da.